

# Marmari

19. zenbakia / 2009ko abendua

Leitzako  
aldizkaria

- Leitzako Inauteriak
- Leitza eredu, euskara bultzatzeko lanean
- Argazki galeria: Aitor Zabaleta
- Denok bat guraso elkartea
- Ordenagailuarekin euskaraz
- eta gehiago...



Ikusi Makusi,  
Leitzan zer ikusi?

## zenbaki honetan:



**Ikusi Makusi.**  
Leitzan zer ikusi?

3. or. Aurkezpena



4-6. or.  
Leitzako Inauteriak



7. or. Leitzako IV.  
Literatur Lehiaketa



8-11. or. Leitzako eredu,  
euskara bultzatzeko lanean



12-13. or. Leitzako  
euskararen hiztegia (II)



14-15. or. Argazki  
galeria: Aitor Zabaleta



16-19. or. Denok bat  
guraso elkarte

20-21. or. Hitzokei

22-23. or.  
Kax-Kax euskara taldea

24-26. or.  
Ordenagailuarekin euskaraz

27. or.  
Denborapasak eta txisteak

28. or. Eta zuk, zer diozu?



# Ikusi Makusi, Leitzan zer ikusi?



**L**eitzan, beste herri askotan bezalaxe, herria bizirik mantentzeko ahalegin handia egiten ari da hainbat jende. Eta baita herria euskaldun mantentzeko ere, zalantzarik gabe. Marmari aldizkariaren 19. zenbaki honetan, besteak beste, ahalegin horren berri jaso nahi izan dugu. Garrantzitsua iruditzen baitzaigu herritarrak horren guztiaren berri izatea, eta egiten dena ikus dadila. Horregatik azaleko esaldia: “Ikusi Makusi, Leitzan zer ikusi?”.

Askotan, izan ere, daramagun bizimodua dela eta, ondokoa zertan ari den ez dugu jakiten. Nahikoa izaten dugu geure buruarekin eta gainean izan ohi dugun zamarekin, eta ez dugu aukerarik besteak zertan ari diren ikasteko, eta ezta geurea gainerakoei azaltzeko ere.

19. Marmarirako herriko hiru talde hautatu ditugu, eta haien lanaren berri biltzen saiatu gara. Denok Bat Guraso Elkarteak dugu horietako bat, Kax-Kax euskara taldea beste bat, eta Leitzako Iñauterizaleen taldea hirugarrena. Hiruak ere lanean ari dira, nork bere helburu propioa duela, eta badute zer kontatua.

Horretaz gain, euskararen alde herrian egin den ahaleginaren erakusgarri, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak egindako neurketaren berri eman nahi izan dizuegu. Izan ere, Leitzan goi-goian ageri da neurtutako 100 herrien zerrendan, lehendabiziko postuan hain zuzen. Ez dago harrokerian aritu beharrik, ez du axola 1.a, 3.a edo 5.a agertzeak. Balio duena hor aurrean egotea da, horrek erakusten duenagatik. Hala ere, garbi dago goian agertzea gauza atsegina dela euskaltzalearentzat, eta, gure ustez behintzat, oro har herritar guztiontzat.

Horiek dira, beraz, Marmari honen ataletako batzuk. Saiatu gara, ohi bezala, bestelako arlo batzuk ere lantzen, herriaren ikuspegia eta ezagutza handitzen eta hobetzen lagunduko digutenak, hitzez eta irudiez osatutako argitalpen honetan.

Zuen gustukoa izanen delakoan.



# Leitzako inauteriak

**L**eitzako inauteriak ospe handikoak dira inguruan. Bertakoentzat, jakina, oso egun estimatuak dira, eta kanpotik ere etortzen da jendea, egun batzuetan gehiago eta besteetan gutxiago, hemengo giroa eta atsaureak ikustera, eta baita pestara ere.

Inauteri horietan badago, gainera, oso bertakoa den edo, behintzat, garai batean bertan asko errotu zen ohitura bat eta atsauretzeko modu bat. Eta atsaure horren inguruan lanean ari da "Leitzako inauterizale taldea". Haiekin hitz egin dugu, eta hementxe duzue kontatu digutena.

**Azken urteotan, garai bateko inauterietako atsaureak berreskuratu eta herrian agertzeko ahalegina**

**egiten ari zarete zenbait herritar. Nondik sortu da gogo hori, eta nola antolatu duzue talde hori?**

Leitzako inauteriak aski famatuak dira eta oro har, osasun-egoera ona dutela uste dugu. Dena dela, garai bateko atsauretzeko modua ia erabat galduta zegoen eta guretzat galera penagarria zen hori. Urteak generamatzen zer edo zer egin nahian, eta 2007. urtean herritar mordoxka bat elkar-tu eta lanean hasi ginen. Hasteko, 2007ko Kultur Astean garai bateko Inauteriei buruzko mahai ingurua antolatu eta bidez hartu genuen, informazioa ez galtzeko. Mahai inguru hartan garai bateko atsaureak berreskuratzeko asmoa plazaratu genuen eta jendeak begi onez ikusi zuen.

**Zuek baino lehenago ere egin da ohitura hau berreskuratzeko ahalegina. Noiz eta nor aritu zen lan horretan? Eta zer eman zuen ahaleginak?**

1981-1986. urteen artean leitzar talde batek berriz atera zituen atsaureak kalera. Koadrilla polita elkartzen ziren, Sagastibeltzatarak, Tolatxenetarak, Bigeratarak, Erbititarrak, Astaitzagakoak, eta abar. Bestalde, Plazaola aldizkarian, zapelak nola egin azaltzen zuen artikulua idatzi zen, eta atsaureei buruzko kontu zahar batzuk bildu zituzten. Bost bat urtez atera ziren atsaureak kalera baina asmoak ez zuen segidarik izan. Dena den, garai hartako argazki mordoa dago, eta baita atsaureen jantzi batzuk ere.



Atsauren kalejira, 2008/01/29.

**Eta zein da taldearen helburua? Zerk bultzatu ditu herriko lagun bartzuk elkartu eta honen inguruan lan egitera? Zein da zuen motibazioa?**

Helburua Leitzako inauteriak zaintzea eta gure atsauretzeko tradizioari eustea da. Gure ustez, Leitzeko atsaureak aski ikusgarriak dira eta urte askotan pesta mundiala jarri izan dute herrian. Gure herriko ondare bat da eta ez genuen galtzea nahi. Garai batean oso baliabide gutxi zituztenean, irudimena erabilita atsaure zoragarriak ateratzea lortzen zuten, eta jendearen gogoan gelditu da hau.

**Leitzan azken urteotan berreskuratzeko ari diren atsaure horiek badute historia, eta horren inguruko in-**

**formazioa ere bildu duzue azken urteotan. Kontatuko al diguzue horren inguruan dakizuen?**

Badakigu XX. mende hasieratik berrogeita hamarreko hamarkada bitarte atsaureak ateratzen zirela Leitzeko Inauterietan. Litekeena da askoz ohitura zaharra goa izatea, baina ez dugu hori frogatzen duen daturik biltzea lortu. 1930. aldeko argazki bikain batean Errekatar koadrila bat ageri da atsauretuta eta jantziak zehatz-mehatz nola ziren ikasi ahal izan dugu. Koadrilla hau urtetan atera zen eta kapritxo ikaragarri prestatzen zen. Argazki horretan ageri den pertsona bat oraindik bizi da, Uruguaien hain zuzen, eta iaz Olasoko apezak bisitatu eta elkarrizketatu ahal izan zuen.

**Informazio iturriak agortuak al dituzue dagoeneko? Edo oraindik gauza gehiago deskubritzeko aukera dagoela iruditzen al zaizue?**

Ez da erraza duela 80-100 urteko informazioa biltzea. Jendearen testigantza oso iturri ona da, baina adineko jendea desagertu ahala, bildu ez bada, ondare hori galdu egiten da. Idatzita ez dago gauza handirik. Astaitzek atsaurei buruzko 1917. urteko Leitzako Udaletxeko Ordenantza berezi bat aurkitu zuen. Idatzi haren arabera, inauterietan atsaurea nor zen ezagutzen baldin bazen ere (aurpegia trapuz estalita izaten baitzuten), ezin zen hura nor zen esan. Alegia, ezagutua ez izatea oso garrantzitsua zen garai hartan.



Leitzako atsaureak, 2009.

**Eta berriz ere gaurkora etorrita, nola iruditzen zaizue txertatu behar dela aspaldiko ohitura hori gaur egungo inauterietan? Zein da haren tokia?**

Guk Leitzeko atsaureak itzultzea nahi genuke, eta lehengo eta oraingo atsaureen ztat lekua dagoela uste dugu. Gure asmoa urtero zita bat egitea da, eta nahi duen jende guztia elkarrekin ateratzea atsauretuta. Azken bi urteotan inauteritako astearte arratsaldez atera gara, eta uste dugu egun egokia dela. Behin jantziak eta zapelak prestatuta, ordea, oso litekeena da jendea zita honetatik kanpo ere atsauretzea, eta honek pesta indartu egin dezakeela uste dugu. Dena dela, momentuz asmoa guxtienez urtean behin lehengo erara atsauretzea da. Koadrilatxo bat elkartzen bagara, ongi. Talde txikia izanagatik ederki pasatzen badugu, eta herrian pesta jartzen baldin bada, konforme izanen gara.

**Atsaurea prestatzeak, zalantzarik gabe, lan pixka bat ere eskatuko du.**

**Zenbaterainokoa da? Zer da egin behar dena?**

Lan handiena zapela egiteak du. Eskulan polita da oso, baina ordu batzuk sartu behar dira, eta materiala ere behar da, papeira, alanbrea, eta abar. Guk azken bi urteotan antolatutako tailerretan, goizean hasi eta eguerdirako eginxea izan dugu zapela. Handik aurrerakoa ez da horren zaila. Tunika moduko soineko bat behar da, eta trapu bat aurpegia estaltzeko. Handik aurrera, detaile txiki batzuk, besterik ez.



Zapelak prestatzen, 2009.

tan antolatutako tailerretan, goizean hasi eta eguerdirako eginxea izan dugu zapela. Handik aurrerakoa ez da horren zaila. Tunika moduko soineko bat behar da, eta trapu bat aurpegia estaltzeko. Handik aurrera, detaile txiki batzuk, besterik ez.

**Gai honetan interesa duenak zer egin behar du parte hartzeko?**

“Leitzeko Iñauterizale taldea” urtean hiru edo lau aldiz biltzen da. Normalean inauterien aurretik Aurreran elkartzen gara herriko txistulariekin atsaureen kalejira prestatzeko, eta ondoren, balorazioa egiten dugu. Bilera horiek irekiak dira, eta normalean Hitzan, irratan eta abar zabalitzen dugu biltzeko asmoa. Bestalde, azken bi urteotan inauterien aurretik tailerra antolatu izan dugu zapelak prestatzeko, eta 6-10 bat laguni lagundu diegu urtero atsaureen jantziak prestatzen. Hurrengo bilera inauterien aurretik izanen dugu eta norbaitek interesik balu, erne egon beharko luke, honen berri irratiz, Hitzaren bidez eta kartelen bidez emanen baitugu.

# Leitzako IV. Literatur Lehiaketa

**A**urten Leitzako IV. Literatur Lehiaketa egin da. Berrikuntza gisa, ipuin edo narrazioez gain, bertso-paperean atala ere sartu zen. Ustekabe polita izan dute antolatzailleek, narrazioen sailean ez bezala parte-hartzea handia izan delako. Lehendabiziko aldia izan da, eta zortzi lagunek aurkeztu dituzte beren bertsoak.

Irabazi, jakina, batek egin behar zuen, eta aurtengo edizioan Miel Mari Elosegi, Luze, izan da. “Gure borda zaharrari begira”

izeneko bertsoei esker eskuratu du aurtengo saria. Epaileak Nafarroako Bertsozale Elkarteko kideak izan dira, eta lanaren balorazio oso ona egin dute: “teknikoki ongi egindako bertsoak dira, esaldien arteko joskera ona da, gaia ongi landua dago, ideia politak ditu eta deskribapen zehatzak egiten ditu...”

Hemen dituzue, zuen gozagarri, aipatutako bertsoak. Gainera, guztiak Leitzako Kultur Taldearen web-orrian ikus ditzakezue ([www.leitzakultura.net](http://www.leitzakultura.net)), eta baita irabazi duten hauek entzun ere.

## GURE BORDA ZAHARRARI BEGIRA

1

Nahiz ongi jakin urduritzeak egiten didala kalte gure bordara igo ondoren gaur nerbioek ito naute seme-alabek han azaltzeke bost urte daramatzate dabiltzalako aparte, ez gogo ez borondate “aita, zu, lasai” dioten arren kezka josita naukate borda oraindik zutik bait dugu baina auskalo noiz arte?

2

Seme zaharrena arrantzan dabil, ez diru eta ez arrai Alaba, Mila, haurdun dagota, alperrik gaude bere zai. Aitor gazteena etxean dugu, baina honekin ere jai Fabrikan lanean darrai, iñoiz etxean ere bai baina ardiak, altxorra baino, Aitorrentzat dira etsai Azienden martxaz etxean iñork ez du deus ere jakin nahi

3

Bihotz xahar honek eman izan dit osasun-buruhausterik eta bost urtez gure bordara ez dut izan iristerik baina gaur haruntz abiatu naiz oroitzapenez beterik Heltzean ez nun eusterik, ez bait nun pena besterik Hobe behean gelditu banintz etxe-zuloan gorderik ez nuelako ikusi izanen honen irudi tristerik

4

Borda zaharrean ezin entzunda txintzarrien ttin-ttiliña munduan iñork sufritzen ote du artzai zaharrok adiña? Belar-soroa ikuste hutsak sortarazi dit samiña Dena zen lapaizt-osiña, belar gozoan ozpiña Azienda gabe borda hau zer den da ia azal eziña Lagun bakar bat gelditu ez den herri huts baten berdiña

5

Gure semeak zainduko luke borda xume hau poliki neretzat zein garrantzitsua ta kuttuna den baleki Baina paretak zartatu dira, zurak ez daude ederki

Behin nekez zena eraiki, nola daukagu hain gaizki?

Ai, Borda xaharra! zu ikusteak begiak dizkit ireki Ni bihotzetik larri naiz baña zu etzabiltza hobeki

6

Urte gutxitan inguru honek ene zenbateko jira! Gaztañedia galdu genuen piñuak sartuz erdira Borda buruko ixtorlekua sasiak hartu du di-da Hesiak tantai eginda, ez, noski, zaindu balira Basurderen bat beheko alorra dena txikitzen ari da Garai batean gu giñen baina, gaur nagusi haiek dira

Gure etxetik borda aldera bagenun bide txukuna ikuste hutsak sortzen zuena poza ta harrotasuna Gaur larri nintzen bilatzeko ere ia ezin bait zen suma Lehengo erosotasuna gaur sasien erresuma Bidea oiha bilakatu da zikin ta arantzaduna Berdiña ez al da izanen gure bideen etorkizuna?

Atsekabea gainditu nahirik etxerantza aldegiñez lasterbideetik jeisten hasi naiz baina nondik zen jakiñ ez Guztiz damutu egin naiz laister egindako ahalegiñez Otadian behera minez, jextean sutu naiz ziñez Noizbait etxera ailegatu naiz zarrata latzak egiñez Hauek nolabait konpon litezke arimakoak iñoiz ez

Ezin sinestuz hain maite dudan mundua denik amaitu auzokoaren artaldeari begiratzuz naiz lasaitu Atzera noski, ez da egingo, honek bueltarik ez baitu Baina sustraiez oroitu, Lehengoekin ez etsaitu, azienda, borda, ta baserriei eusteko indarrak gehitu Edo oraintxe zaintzen ditugu edo laharrek jango gaitu



# Leitza eredu,

## euskara bultzatzeko lanean

UDALEN HIZKUNTZA-POLITIKA NEURTU DU  
KONTSEILUAK, ETA LEITZA AGERTU DA  
ZERRENDAKO LEHEN POSTUAN

**L**eitzan euskaltzale den edonorentzat berri ona da izenburuan jaso duguna, zalantzarik gabe. Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak Euskal Herriko hainbat udalerritako hizkuntza-politika neurtu du, eta, osatu den zerrendako lehendabiziko tokian Leitza ageri da. Leitzan, beraz, ahalegin handia egiten da euskararen alde. Ziur asko hori esatea Leitzan bizi garenontzat ez da deus deskubritzea, baina hala ere atsegina da lan eta ahalegin horren aitortza ikustea eta uste hori baieztatzea.

Datozen lerrootan, neurketa hori zer den eta nola egin den azalduko dugu, eta hainbat xehetasun emanen ditugu.

### NEURKETAREN NONDIK-NORAKOAK, ORO HAR

2005. urtean Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak lan-ildo bat martxan jarri zuen, udalerrien





hizkuntza-politikaren inguruan. Hain zuzen ere, udalek euskararen inguruan egiten duten politika, egiten duten lana azken batean, neurtu zuen Kontseiluak. Eta neurketa hori egin ondoren, udal bakoitzari "nota" bat eman zaio, nolabait esateagatik.

Neurketa Euskal Herri osoan egin da. Ez da herri guztietan egin, jakina, ezinezkoa litzatekeelako. Euskal Herri osoko 100 herri hartu dira, eta, aurreratu dugun moduan, zerrenda osoan notarik altuena jaso duen herria Leitza da. Zerrendako lehendabiziko postuetan, oso modu nabarmenean, UEMAko herriak daude.

Esan dezagun, jarraitu baino lehen, emaitzak beti erlabetizatu egin behar direla, hizkuntzaren normalizazioa ez baita matematika hutsa. Hori esanda, egia ere

bada Leitza hor agertzea zerbaiten seinela dela, eta pozik egoteko modukoa dela. Leitza euskararen normalizazioan erreferentzia bat da, eta hala da, gure ustez, udalaren, euskalgintzaren eta herritarren ahalginari, jarrerari eta praktikari esker.

Leitzaren irudia herri euskaldunarena da, horrenbestez. Eta hori oso gauza naturala da, alde batetik, naturaltasun handi samarrez bizi garelako hemen euskaraz. Baina, besta alde batetik, apustu baten emaitza ere bada, eta hizkuntzari eusteko gogoia eta adorea ere erakusten du.

Eta, gaiarekin jarraituz, zertarako neurketa edo ebaluazioa? Arrazoiren bat behar du, jakina, horrelako lana hartzeko erabakiak. Bada, neurketaren bitartez, udal-administrazioen lanean eragiteko borondatea dago, euskararen normaliza-

zioaren bidean ahalik eta pausorik eragin-korrenak eman daitezten. Lan-ildo honen abiapuntua hizkuntza-politiken neurketa da, baina, horren ondoren edo horrekin batera, politika horietan aldaketa positiboak lortzeko helburua dago.

Neurketa edo ebaluazioa egiteko Kontseiluak metodo eta tresna zorrotz bat sortu zuen, eta ehunka lagunek ekarpena jaso eta uztartu zuen: soziolinguistenak, udalako euskara teknikariak eta beste administrazio batzuetako teknikariak, besteak beste. Neurketaren lehenengo fasean, 2006. urtean, 66 udalerriren neurketa egin zen: 10.000 biztanletik gorako herri gehienetan egin zen. Ondoren, 2008. urtean, 10.000 biztanletik beherako herrietara zabaldu zen eta, orotara, ebaluazioa 100 herrietan egin da.

Aurrera begira, Kontseiluaren helburua honakoa da: lehendabiziko neurketa hau egin den herri guztietan, aurrerago, bigarren neurketa bat egitea. Horrekin, herri horien hizkuntza-politikaren eboluzioa aztertuta ahal izanen da, eragiten jarraitzeko.

### METODOLOGIA

Ebaluazio hau egiteko, ezinbestean, neurtu edo ebaluatu beharreko elementuak edo alorrak finkatu behar ziren. Hauek izan dira:

1. Erabaki orokorrak
2. Udal-langileak
3. Beste zerbitzuak eta azpikontratak
4. Udalaren komunikazioa
5. Hizkuntza-paisaia
6. Udalaren kultura-ekintzak
7. Hezkuntza 0-3 urte
8. Euskalgintza
9. Merkataritza eta lan-mundua
10. Kirola eta aisia

Aztertutako arlo horiek, nolana ere, ez dute pisu bera hizkuntza-politikaren ebaluazioan. Arlo batzuen garrantzia handiagoa da beste batzuen bano, eta, ondorioz, ponderatu egin dira.

Bestalde, neurketa-sistema honetan, hiru zutabe erabili dira oinarri gisa:

- Batetik, gai baten inguruan zer nolako arauak hartu diren.

- Bestetik, arau horiek gauzatzeko zer nolako baliabideak jartzen diren.

- Azkenik, egoera erreala zein den; arauak egon ala ez, zer den praktikan gertatzen dena.

Ebaluazio kuantitatiboa, alegia, zenbakiekin eta sailkapen moduan ematen dena, termometro baten moduan ulertu behar da, herri batzuen eta besteen hizkuntza-politika alderatzeko aukera ematen duena. Horretan, Kontseiluaren ikuspuntutik behintzat, garrantzitsuena ez da hurrenkera zehatza, baizik eta gutxi gorabeherako kokapena. Hau da, aurreko aldean, erditsuan edo atze samarrean kokatzen den udalerria.

Rankingarekin edo sailkapenarekin batera, herriz herriko ebaluazio kualitatiboa ere egin da, aurkitu diren elementu positiboak eta hobetu beharrekoak biltzeko.

### UEMAKO UDALERRIEN EBALUAZIOA

Ranking orokorrean Euskal Herri osoan orain arte aztertutako herrien artean (100 inguru), UEMAko herri gehienak lehengo postuetan kokatzen dira. Horrek bi gauza erakusten ditu, gure ustez: euskarekin konpromisorik handiena duten udal gehienak UEMAn biltzeko erabakia hartu

duela, batetik; eta, bestetik, UEMAn egoteak euskararen normalizazioari ere bultzada handia ematen duela.

Sailkapeneko lehendabiziko herriak hauek dira:

Herria	Puntuak
1 Leitza	9,63
2 Aulesti	9,50
3 Usurbil	9,49
4 Altzo	9,39
5 Anoeta	9,27
6 Zestoa	9,21
7 Aduna	9,11
8 Aramaio	9,10
9 Arantza	9,09
10 Oiartzun	9,01
11 Azpeitia	8,85
12 Lekeitio	8,82
13 Oñati	8,57
14 Bermeo	8,56
15 Ajangiz	8,55
16 Bergara	8,50
17 Lezo	8,46
18 Ondarroa	8,42
19 Tolosa	8,21
20 Beasain	8,20
21 Etxarri-Aranatz	8,02
22 Orio	7,86
23 Bera	7,59
24 Gernika-Lumo	7,50
25 Elorrio	7,42
26 Arrasate	7,41
27 Legazpi	7,27
28 Elgoibar	7,26
29 Soraluze	7,17
30 Zarautz	7,10
31 Etxalar	6,89
32 Mungia	6,80
32 Lesaka	6,65
34 Azkoitia	6,52
35 Elgeta	6,52

### LEITZAKO UDALAREN HIZKUNTZA-POLITIKAREN EBALUAZIO KUALITATIBOA

Lehen azaldu dugun moduan, alorrez alorreko azterketa ere egin du Kontseiluak, eta alor bakoitzean nabarmentzeko modukoak jaso ditu, hobetu beharrekoak barne. Honakoak dira horietako batzuk:.



## ERABAKI OROKORRAK

Kontseiluak aztertutako elementu guztiak modu positiboan baloratuak izan dira:

- Ordenantzen bidez arau-marko egonkor bat dago.
- Euskara Plan Orokor bat dago.
- Euskara Zerbitzua ere badago (Leitzaldeko Mankomunitatearen aldetik eta UEMAren bidez).
- Euskararen aurrekontua %3tik gorakoa izatea.

## UDAL LANGILEAK

Atal honetan ere, aztertutako elementu guztiak Kontseiluak modu positiboan baloratu ditu:

- Lanpostu zerrendako langile berrien kontratazioa arautua dago eta estrategikoak diren lanpostuetan Hizkuntza Eskakizunak ezarriak daude.
- Praktikan, udalaren atal guztiek nagusiki euskara daukate lan-hizkuntza.
- Bestetik, hobetzeko elementu moduan Kontseiluak ondorengo hau aipatu du: praktikan kontratazio irizpideak kasu guztietan jarri eta betearaztea.

## BESTE ZERBITZUAK ETA AZPIKONTRATAK

Atal honetan aztertutako elementu guztiak Kontseiluak modu positiboan baloratu ditu:

- Herritarrekiko harreman zuzena duten azpikontratatuak zerbitzuei zein udalari aholkularitza juridikoa edo teknikoa eskaintzen dioten zerbitzuak. Bietan zerbitzuak euskarazkoak izatea arautu da eta, praktikan, aztertutako kontratazio plegu guztietan horrela agertu da.
- Beste aldetik, hobetzeko elementu moduan Kontseiluak ondorengo hau aipatu du: udalari aholkularitza juridiko eta



teknikoa eskaintzen dioten zerbitzu enpresek udalarekin izaten dituzten harremanak —txostenak eta abar— euskaraz izatea arautu eta betearazi behar da.

## UDALAREN KOMUNIKAZIOA

Kontseiluaren ikuspuntutik, elementu positibo moduan ondorengo hauek azpimarra daitezke:

- Udalaren komunikazio ofizialak euskaraz izatea arautu da.
- Udalak lagundutako hedabideen kasuan euskararen erabilera nolakoa behar duen izan ere arautua dago. Azkenik, praktikan aztertu diren komunikazio gehienak euskara hutsean izan dira eta horrela izan ez den kasu bakanetan, euskara nagusia izan da edo nabarmendua izan da

## HIZKUNTZA-PAISAIA

Kontseiluaren ikuspuntutik, elementu positibo moduan ondorengo hauek azpimarratu dira:

- Udalak kudeatutako hizkuntza paisaian euskararen presentzia bermatzea arautu

da, baita udalak diruz lagundutako taldeen ekimenen publikitate ere. Praktikan, aztertu diren elementu gehienak euskara hutsean agertu dira, kaleko errotuluak izan ezik.

- Hobetzeko elementu moduan aipatu da kaleen izenak idazteko irizpidearekin erdara dela nabarmendua agertzen dena.

## EUSKALGINTZA

Kontseiluaren ustez elementu positibo moduan azpimarratzekoa da:

- Euskara ikasi nahi duten herritarrentzako beka unibertsala egotea.
- Bestetik, euskalgintzako eragileek jasotzen dituzten dirulaguntzen kasuan, Udalak herriko euskaltegiari ematen dion diru kopurua aipatzekoa da, baita Udalak ematen dizkion bestelako laguntzak ere (lokalak, horniketa eta abar).

## MERKATARITZA ETA LAN MUNDUA

Arlo honetan, bildutako informazioaren arabera, Kontseiluak egoera modu positiboan baloratzen du.

Praktikan eta errealitatean, beraz, euskararen inguruko hizkuntza politikan elementu positibo asko jaso da: gauza konkretoak eta errealak, ikusi eta neurtu daitezkeenak. Horrek eraman du Leitzako "ranking" honetako goiko tokira. Datu positibo horien guztien ondoan hobetzeko elementuak ere badaude, jakina, eta horiei ere begiratu beharko zaie, hor goian jarraitzeko. Ez inoren aurrean presumitzeko eta harrotzeko, neurri batean behintzat euskaraz bizi garen seinale delako baizik.



# LEITZAKO EUSKARAREN HIZTEGIA (II)

Marmariren 18. zenbakian ere honelaxeko atal bat jarri genuen. Orduan ere, oraingoan bezala, Mikel Olanoren *Aio*, *Leitze* hiztegi marduletik hainbat hitz atera genituen, eta erronka bota genizuen.

Eta oraingoan ere ariketa bera proposatzen dizuegu. Hitz hauek banan-banan begiratu, eta ea asmatzen duzuen bakoitzaren esanahia zein den. Bukatzen duzuenean, eta bertako hitzekin gozatzen jarraitu nahi baduzue, *Aio*, *Leitze* liburura joatea besterik ez duzue. Han dauzkazue, pilaka eta adibidez josita, hemengo hainbat altxor txiki.



## 1.- Auzkera

- a) Auzkaldeko euskara
- b) Ahunzkara, ahuntzaren araldia
- c) Ahuntzen hizkera

## 2.- Azalak izan

- a) Dermatitis
- b) Azal finekoa izatea
- c) Erreparorik gabekoa, lotsagabea izatea

## 3.- Biarregusu

- a) Amaren edo aitaren lehengusu baten seme edo alaba
- b) Amaren edo amonaren semearen edo alabaren lehengusua
- c) Izebaren amaren edo aitaren semea edo alaba

## 4.- Bostortz

- a) Bost hortz handiko area
- b) Bost hortz besterik ez dituen umea
- c) Baserriko lanak kudeatzeko programa informatiko berria

## 5.- Diki daka

- a) Aurrerako futbolarien estilo berezia
- b) Bat-bateko mugimendua edo kolpea adierazten duen onomatopeia
- c) Zenbait autoetako atzeko aldean aditzen den soinu misteriozua

## 6.- Eriosur

- a) Girorik onena duen Leitzako futbol zelaiko harmailetako zatia
- b) Leitzako trafikoak hainbati eragiten dion sentrazio bizia
- c) Heriotza edo arrisku bizia bertan sumatzen duenaren sentiera larria

## 7.- Erruleku

- a) Oiloek arrautzak erruten dituzten lekua
- b) Pekatua egin den lekua
- c) Oiloek pekatua egin eta arrautzak erruten dituzten lekua

## 8.- Eundimundu

- a) Leitzan bizi diren senegaldarren agurra
- b) "Eguraldi mundiala" hizketa azkarrean
- c) Sekulan, egundaino, inoiz

## 9.- Furrunda

- a) Forroa gordetzeko funda
- b) Abiadura, ziztua
- c) Parranda ikaragarria, ohikoa baino handiagoa

## 10.- Gautiro

- a) Gauean, bat-batean, entzuten den tiroa
- b) Leitzan eta ez beste inon bizi den hegazti harrapakaria
- c) Gau giro

## 11.- Gerrikote

- a) Gerri-buelta polita lortu duen mutikotea
- b) Gerriko lodi eta zabala
- c) Gerriko moduko azal-zerrenda bat kendu zaion arbola



### 12.- Gizongai

- a) Soldaduska egin gabe gelditu diren mutilak
- b) Senargai
- c) Gizaseme homosexuala

### 13.- Gosebelar

- a) Ahuleri larria
- b) Gosea kentzeko belarra
- c) Gosea emateko belarra

### 14.- Ikazketa

- a) Ikazkin titulua ateratzeko ikazketa
- b) Ikatz garraio edo karreto
- c) Kattagorria

### 15.- Konpontzioa

- a) Konponketa txikia, behin behinekoa
- b) Melontzio pailazo ezagunaren bikotekidea
- c) Irtenbide negoziatua

### 16.- Kunplikatillu

- a) Galiziarrek esaten dutena, gauzak okertzen ari direnean
- b) Umeak katiluan jarritako guztia jan duenean
- c) Kunplimendua adierazteko hitz informala

### 17.- Ostrillike

- a) Leitzan sarritan aditzen den juramentua
- b) Ostadarra
- c) Ostraz eta intxaurrez egindako entsalada

### 18.- Poteroa

- a) Pote handiak esaten dituenak
- b) Txikiteroa
- c) Parrandatan koadrillari zergak jasotzen dizkiona

### 19.- Preobe

- a) Lagunarekin ohera joan aurretik egiten diren erritualak
- b) Uztarria, Leitzako euskaraz
- c) Pregoi

### 20.- Tortike

- a) Tortikulisa
- b) Garbitasun ezak azalean sortzen duen zikin-une lakarra
- c) Zaplastako txikia

# Leitza Aitor Zabaletaren begietan

Lehendik ere esana dugu Leitza ikusteko mila modu egon litezkeela, begiradak adina. Leitzari begira jarritz gero, bati gauza bat eginen zaio deigarri, besteari beste zerbaite. Zuk Leitza kolore batekoa ikusiko duzu, eta zure ondokoak beste kolore batekoa. Atal honetan Leitzako zenbait irudi jasotzen dira. Aitor Zabaletak egindako argazkiak dira, Leitzako errealitatearen zatitxoak, denak ere politak eta interesgarriak. Ea zure gustukoak diren.



Elur melur, ez gattok hire bildur



Basoa



Meta egiten



Leitza



Zezen suzkoa, pestetan



2002ko pestak



Umeen eguna



Pontzio eta Joxe Etxatxuneko atarian



# Denok bat guraso elkarte

**A**rtikulu honen bitartez Leitzako Denok Bat Guraso Elkartearen berri emanen dizugu. Urte osoan zehar hainbat ekintza antolatzen dituzte, ziur asko batean edo bestean ikusi izan dituzu gurasoak lanean. Idatzi honetan, egiten duten lanaren inguruko informazio zehatzagoa bildu eta aurkeztu nahi dizugu.

## FITXA:

- **Izena:** Denok Bat Guraso Elkarte.
- **Partaide kopurua:** guraso elkarteko batzarra eskolako guraso guztiek osatzen dute, eta urtean behin elkartzen da, ikasturtearen hasieran. Guraso Elkarteko batzordea, berriz, guraso talde txikiago batek osatzen du (2009-2010 ikasturtean 9 lagun). Batzorde hau urtero berri-

tuz joaten da, batzuek utzita eta berriak etorrita. Batzordea irekia da eta nahi duenak eman dezake izena bertan.

- **Osaera:** 2009-2010 ikasturterako osatzen den taldean sortzi ama eta aita bat daude. Aurreko urteetan ere taldeko partaide gehien-gehienak emakumezkoak izan dira.
- **Egoitza:** Guraso Elkarteak Erleta Ikastetxe Publikoan dauka egoitza, 3. pisuko gela batean.
- **Bilerak:** Guraso Elkarteko batzordea normalean bi aste behin elkartzen da, eta egin beharreko lana dela-eta beharrezkoa bada, aste behin. Irailetik ekainera egiten dira bilerak, normalean arratsaldeko 3etatik 4,30etara, haurrak eskolan dauden bitartean.





### GURASO ELKARTEAREN HELBURUAK:

Eskolara haurrak eta eskolako langileak (irakasleak eta irakasle ez direnak) joaten dira, jakina denez. Gurasoak ere, ordea, eskola komunitatea deitzen den horren zati dira. Gurasoek ere badute, beraz, eskolako bizitzan nolabaiteko zeresana edo zeregina, eta horretan laguntzea da guraso elkartearen helburua.

Guraso elkarteak egiten dituen lanak edo jarduerak, labur azalduta, honako helburuetara zuzenduta daude:

- 1.- Eskolako haurren heziketa eta garapena osatzea, haurren parte-hartzea eta ongi pasatzea bilatzen duten eskolaz kanpoko jarduerak antolatuz: horretarako egiten da urtero programazio jakin bat, normalean urrian hasi eta ekainean bukatzen dena (ludoteka, dantza, futbola, pilota, igeriketa...).
- 2.- Gurasoen eta eskolaren arteko harremanetan bitartekari izatea: guraso el-

kartea da eskola-kontseiluan gurasoen ordezkaria. Gurasoek eskolarekin daukaten harreman zuzenez eta indibidualaz gainera, guraso elkarte ere guraso horien kezka edo proposamenak bideratzeko organoa da.

- 3.- Gurasoen prestakuntza eta gurasoentzako informazioa: eskolaren eta familiaren arteko harremanean eta egunerokotasunean gurasoentzat interesgarriak diren hainbat gai, eztabaida eta galdera sortzen dira. Gai horiei erantzuteko antolatzen dira gurasoentzako formazio-saioak, hitzaldiak edo bestelakoak.

### GURASO ELKARTEAREN EGITEKOAK

Guraso elkartearen egitekoak eta lanak oso lotuta daude elkartearen helburuekin, logikoa denez. Egiten den lanaren erakuskarri, 2009-2010 ikasturterako antolatu diren jarduerak azalduko ditugu.

### Eskolaz kanpoko jarduerak

- **Ludoteka.** guraso elkarteak eta euskara zerbitzuak elkarlanean antolatzen dute. 3 eta 6 urte bitarteko 30 ume inguruk eman du izena. Astelehenetan eta ostiraletan irekitzen da, arratsaldeko 5etatik 6,30etara.
- **Dantza.** Hiru talde sortu dira, adinaren arabera: haur dantza eta euskal dantza. 16 haur ari dira haur dantzan, eta 30 inguru euskal dantzan. Astean ordu-beteko saio bana egiten dute.
- **Futbola:** 5 eta 12 urte bitarteko 17 haur elkartzen dira futbolekin. Ostiraletan aritzen dira, kiroldegian, arratsaldeko 5etatik 6etara.
- **Pilota:** pilotan HH 3. eta LHko 14 haur aritzen dira. Asteazkenetan elkartzen dira, pilotalekuan, 4etatik 5etara.
- **Igeriketa:** urtarrila eta ekaina bitartean, igeriketan izena eman duten haurrak Lekeunberriko igerilekuetara joan dira,



eta hango begiraleekin igeriketa ikastaroa eginen dute. Asteazkenetan joanen dira, eta ordu erdiko saioak eginen dituzte.

- **Erraketa:** aurtengo berrikuntzen artean erraketa eta pala daude. Osatu den taldea (29 lagun) ostiraletan arituko da, pilotalekuan, arratsaldeko 6ak arte, taldetan banatuta.
- **Dantza modernoa:** hau ere berrikuntza dugu, lehendabiziko aldia baita ematen dena. 15 hurrek eman du izena, eta astelehenero egiten dute ordubeteko saioa.

#### Bestelakoak

- **Eskolatik igerilekura:** eskolako ordu-tegiaren barruan, Lehen hezkuntzako 2. mailakoak Lekunberriko igerilekura joanen dira, igeriketan aritzera eta ikastera.
- **Zinea.** Urrian hasita eta martxora arte umeentzako pelikulak hautatzeaz eta ekartzeaz arduratzen da guraso elkarteak, Leitzako zine taldearekin batera. Emanaldiak hilean behin izaten dira, normalean hileko azkeneko igandean.
- **Olentzeroa.** Abenduaren 24ko goizean herriko kaleetan barna kalejira bat antolatzen da, Olentzerorekin.
- **Inauteriak.** Inauterietako asteartean, arratsaldez, eskolatik hasita plazarainoko kalejira egiten da, eta ondoren plazan goxokiak eta txokolata banatzen zaizkie haurrei.
- **Eskolen arteko topaketak.** Duela zenbait urte Leitza, Goizueta eta Aresoko eskolen arteko topaketa antolatzen da urtero, gizarte zerbitzuko drogomenpekotasunaren prebentziorako zerbitzuekin elkarlanean. 2008.ean Leitza antolatu zen, 2009.ean Areson, eta 2010.ean Goizuetan izanen da.
- **Mendi eta bizikleta irteerak.** Aurrerako Mendibil mendi taldearekin batera, ikasturtean zehar haurrentzako zenbait mendi-irteera egiten dira, normalean Leitza bertan. Urtean behin (2009.ean ez zen egin) bizikleta martxa bat ere egiten da, Plazaolan barrena.
- **Hitzaldiak.** Gurasoentzat interesgarriak izan litezkeen gaiak hautatu eta horien inguruko hitzaldiak antolatuko dira.
- **Umeen eguna.** Umeen egunean guraso elkartearen arduraren izaten da eguerdiko jokoak prestatzea eta antolatzea.
- **Eskola-kontseilua.** Guraso elkartearen ordezkariak eskola-kontseiluan parte hartzen dute, urtean zehar egiten dituen bileretara joanez.
- **Idea berriak:** aurten guraso elkarteak badu jarduera berriren bat egiteko asmoa. Besteak beste, toki ezberdinetako guraso elkartearen arteko topaketak, eta gurasoentzako informazio-buletina.



Horiek egiteko aukera, nolahi ere, aurrekontuarekin eta lanak egiteko jasokodena laguntzarekin oso lotuta daude.

### **DIRU-ITURRIAK**

Guraso Elkarteak urtean zehar antolatzen dituen jarduerak, jakina, koste ekonomikoak ere izaten dute, ez nolanhikoa gainera. Kostu hori ordaintzeko elkarteak dituen diru-iturriak hauek dira:

- Gurasoen kuotak
- Udala
- Nafarroako Gobernua
- Eskola
- Euskadiko kutxa
- CAN Fundazioa (Zuk aukeratu, zuk erabaki)
- Jardueretako matrikulak

### **SORTZEN-IKASBATUAZ**

Sortzen-Ikasbatuaz eskolen eta guraso elkarten bilgune bat da, eta bertan daude

sartuta, beste hainbatekin batera, Leitzaoko Erleta Ikastetxe Publikoa eta Denok Bat Guraso Elkarteak.

Sortzen-Ikasbatuaz zer den hobeki jakiteko, haren web-orritik hartutako pasarte eta esaldi batzuk ekarri ditugu. Honatx:

Sortzen-Ikasbatuaz Nafarroa Garaiko Sortzen eta EAeko Ikasbatuaz elkarteek bat egin ondoren sortu zen, eta bere helburua euskal eskola publiko berria bultzatzea eta indartzea da.

Euskal Eskola Publiko Berri horrek honelako ezaugarriak izan beharko lituzke, Sortzen-Ikasbatuaz araberak:

- Euskalduna eta eleanitza.
- Autonomia, pedagogian zein kudeaketan.
- Langileen iraunkortasuna eta finkotasuna bermaturik.
- Demokratikoa zinez, zeinean eskolako partaide guztiek (ikasle, guraso, irakasle eta langileek) aukera dute

proiektuan eta kudeaketan eragiteko eta erabakiak hartzeko.

- Kalitatea ardatz duena, laikoa, hezketzan oinarritua, eta integratzailea, diskriminazio mota guztiak bazterturik.
- Doakoa benetan eta pedagogi berrikuntzan aitzindari.

Sortzen-Ikasbatuazek Euskal Herri osoko ikastetxe eta ikastola publikoen arteko elkarlana sustatzen du, "Euskaraz Mintza" bezalako hizkuntza proiektuak eskainiz, esate baterako, eta egitasmo komunak bideratuz. Era berean zerbitzuak eskaintzen ditu, besteak beste aholkularitza juridikoa, edo guraso eskolak eta preskakuntza jarduerak irakasleentzako.

Gaur egun Nafarroa Garaiko, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako hirurogei ikastetxetako hainbat kide ari dira lanean eta dauden eginbeharrak handiak bezain ederrak dira.

# HITZOKEI

*“Egunon-egunoff: goizean eta gauean agurtzeko modua”*

*“Taloween: urriaren 31 gauean egiten den talo jate jaia.”*

*“Katxondo: katxia edan ondorengo aldartea.”*

**H**izkuntzarekin eta hitzarekin jostatzea aspaldiko kontua da, bertsolaritza bera baino askozaz ere zaharragoa. Ziur asko hizkuntzak sortu orduko hasiko ziren hiztunak haiekin eta haien hitzekin jostatzen.

Jakina, denborak aurrera egin ahala, hitzekin jostatzeko modu horiek eta teknikak aldaturaz joanen ziren, baita gaiak, estiloa eta teknika ere. Baina funtsa, seguruenik, antzekoa zen orduan eta orain: hizkuntzarekin gozatzea, entrentenitza, umorea edo kritika egitea...

Atal honetan, ARGIA aldizkariko artikulubatean ezagutu dugun “hiztegi” baten berri eman nahi dizuegu. Izan ere, dibertigarria eta entretenigarria izateaz gain, parte hartzeko aukera ere ematen du. Hitzak asmatzea edo sortzea gustuko baldin baduzu, beraz, zure sormenari bidea emateko aitzakia eta aukera ederra daukazu hemen.

Guk, oraingoan behintzat, ARGIAko artikulurorretan ageri diren adibideak ekarriko dizkizugu hona, aukeraketa polita iruditzen zaigulako. Zerrenda horri beste zenbait

hitz erantsi dizkiogu, zuzenean Internetetik hartutakoak.

Gustuko duzula eta gehixeago jakin nahi duzula? <http://hitzokei.tximinia.net> edo <http://search.twitter.com/search?q=%23hitzokei> helbideetan begira dezakezu, edo, bestela, Sustatu.com web-guneko Letrak Sare Kantoitik ataleko postontzitik ere zure hitzak edo proposamenak bidal ditzakezu (hitzokei@sustatu.com).

Honatx, esan bezala, Hitzokei-n ikus ditzakezun horietako batzuk:

**Ekaina:** sarean zerbeza hartzeko sasoia.

**Halaba!:** semea espero zenean alaba jaio dela adierazteko erabiltzen den interjekzioa.

**Bideatxurria:** mozkortutakoan etxera iristeko egiten den bide bihurgunetsua.

**Txosna:** zapatilek kalimotxo putzuetan egiten duten soinuaren onomatopeia.

**Basura:** basoko errekek dakarrena.

**Demagogo:** apusturako irrika duen hizlari tranposoa

**Euskizofrenia:** bi Euskal Herri esistitzaak, hango biztanleengan sortzen duen gaitasuna, errealitatearen pertzeptzio okerra edo partziala eragiten duena.

**Haraba:** kasualitatez bezala aurkitutako Euskal Herriko lurraldea.



Basura

**Faxista:** faxista fax-ak bidaltzearen poderioz fanatiko bihurtzen dena.

**Ertxantxa:** polizia naiz. Ezeeeetz.

**Patxiloketa:** Lehendakari berriaren aginduz eskuburdinak jartzen dizkizutenean.

**Gezurtero:** urtebetetze egunero, adina faltsutzen duena.



Patxiloketa

**Euribor:** Euskal Herriko berdetasun tasa neurtu (eta hobetzeko) erabiltzen den indize hezea.

**Eurotu:** sos batzuentatik burua galdu.

**Egunon-egunoff:** goizean eta gauean agurtzeko modua.

**Makurtu:** izozgailuan sartzeko beharra duen hanburgesa.

**Marrubiak:** oihu ikaragarriak botatzen dituzten emakume ilehoriak.

**Gi-zendu:** kiloak hartu hil arte.

**Madarikatu:** maldizio baten bidez pertsona bat madari bihurtu.

**Mudantza:** behien koreografia aldakorra.

**Sormen:** gizonetzko monja.

**Ezkuntza:** desobedientziarako edukazioa.

**Ustela:** Ipar Amerikako Estatu Batuetako bandera.

**Eposta:** txirrindulari batek nahita drogatu dela onartzen duen posta elektronikoa.



Gi-zendu

**Tripi-tixa:** 1. Akordeoi itxurako pilula. 2. Dantza folkloriko aluzinogenoa.

**Barrabila:** tabernan potrojorran aritzen trebea.

**Pazientzia:** muxukalogia.

**Lisuna:** derrigorrez "haragiaz" ordaindu beharreko isuna.

**Orgasmo:** gogoa gurdi batean jarri eta plazerez ixuritzea.

**Antzuola:** olatu honek bustitzen bazaitu, ez duzu seme-alabarik izango sekulan.



Taloween

**Antizorgailua:** hipotekekin amaituko duen tresna.

**Zakhila:** viagra hartzeko garaia.

**Eztandarte:** gudan bandera daraman soldadu gizajoa. noiz arte?

**Internauta:** Etxetik ateratzen ez den internet zalea.

**Ospatu:** Mozkortu eta pagatu gabe alde egin.

**Grinatsuki:** Japoniar marrazki bizidunetako heavya.

**Sutsuki:** Kartsu aritzen den japoniar marrazki bizidunetako pertsonaia.

**Taloween:** urriaren 31 gauean egiten den talo jate jaia.

**Zaitxaket:** jaka jantzita itxaron ahal zaitut.

**Katxarro:** "I'm drunk and proud ... katxiz horditu ta harro nago.

**Katxondo:** katxia edan ondorengo aldartea.

**Islandia:** Inoiz ikusitako irlarik haundiena.

**Txotxeatu:** Kupeletik kupelera sagardoa probatzen aritzea.



Antzuola



2009ko Korrika

# Kax-kax

## euskara taldea

**L**eitzan elkarte eta talde ugari ari da herrigintzan lanean. Kulturean, kirolean, hezkuntzan, euskararen inguruan... Horietako asko aspaldikoak, baina baita tartean berriren bat ere. Kax-kax dugu horietako bat, eta jendaurrean aurtun agertu denez, haien berri eman nahi izan dugu MARMARI aldizkarian, elkarriketatxo honen bitartez. Honatx:

### **Kax-kax taldearen aurkezpena 2009ko ekainean egin zenuten. Orduan sortu al zen?**

Euskara taldea, modu batean edo bestean, beti izan da hemen Leitzan. Orain dela urte asko egon dira euskararen alde lan eginguten zuten pertsonak eta taldeak. Gogoratzten dut, 1990. urtean, orduan Txepillo euskara teknikari zela, bazela hemen tal-

de bat. Kax-kax taldea, neurri batean, talde horien eta ahalegin horren nolabaiteko segida ere bada. Dena dela, Kax-kax taldea bera, dituen berezitasunekin, 2008ko urrian sortu genuen.

### **Eta zergatik sortu zenuten?**

Euskara taldeak orain arte udalarekin, mankomunitatearekin, instituzioekin nolabait esateko, oso lotuta egon dira. Hala gertatu da orain arte, eta egia esateko gustura eta arazorik gabe aritu gara lanean. Hala ere, lotura horrek nolabaiteko kutsu instituzionala eta formala eman dio beti euskararen aldeko lan horri, eta talde “ez-

formal” baten beharra ere bazegoela iruditu zitzaigun. Bestelako erakunde edo elkarten ordezkari osatuta egon beharrean, besterik gabe euskaltzale diren eta taldean lan egin nahi duten pertsonen osatuta dagoen talde independentea.

### **Eta izena, nondik nora?**

Handik eta hemendik, izen asko begiratu genituen. Hemengo hizkera bereziarekin lotura zuen izena nahi genuen, eta Mikel Olanoren hiztegian ere bila aritu ginen. Azkenean, Kax-kax gustatu zitzaigun. Azken finean, euskarari atak irekitzen dizkion zentzua eman nahi geniolako ize-

nari. Eta, bestalde, ate joka ibiltzeko asmoa ere badugu.

### **Eta taldea bera, nolakoa da? Nork osatzen du, nola funtzionatzen du, zenbatero elkartzen da...?**

Taldea? Ikaragarria! (kar-kar). Tira, txan txak alde batera utzita, gaur egun taldea bost lagunek osatzen dugu. Normalean 2 edo 3 astetik behin elkartzen gara, eta ordu pare bateko edo ordu eta erdiko bilerak egiten ditugu. Talde irekia da gurea, jakina, eta euskaltzale sentitzen den eta lan pixka bat egin nahi duen inor etorri daiteke bertara. Bestalde, boluntarioa eta autonomoa da.

### **Taldea osatu zenuten, eta, pentsatzekoa denez, helbururen bat, lan-ildoak eta egitekoren batzuk izanen dituzue. Zein dira?**

Gure helburua, oso labur azalduta, euskara bultzatu eta sustatzea da. Herri euskalduna dugu Leitza, baina euskara oraindik makal ikusten dugu zenbait arlotan, eta euskaraz normal-normal bizitzeko oraindik ere bultzatu egin beharra dago.

Leitzan euskaraz bizitzea dugu helburua, beraz, eta helburu horri begira hautatu ditugu gure lan-ildoak. Helburu horren arabera, eta, baita ere, beste kontu batzuk gogoan izanda. Adibidez, gustura aritzeko bidea emanen diguten eta motibatuko gaituzten arloetan eta gaietan arituko gara lanean, ahal bada. Nolabaiteko eraginkortasuna izan dezakegun gaiak lantzen saiatuko gara. Eta, jakina, euskararen ikuspegitik garrantzitsuak diren gaiak jorratu nahi ditugu.

2009. urtearen hasieran hautatu genituen lan-ildoak, galderari erantzunez, hauek dira: Korrika, Etorkinak, Kontseiluaren Euskaraz Bai dinamika, teknologia berriak, euskararen kale erabilera, gurasoak, eta taldea bera ezagutaraztea.

Horietako bakoitzaren inguruan ekin-tzaren edo urratsen bat edo beste egiten saiatzen ari gara: Korrikaren antolakuntzan parte hartu genuen, etorkinen eta euskararen inguruan lan egiten ari den lantalde bat antolatu eta bideratu dugu, euskarazko softwareari buruzko treba-



Kax-Kax taldearen aurkezpena



Euskaraz Bai dinamika

kuntza-saio bat egin dugu, euskararen kale-neurketa egin eta emaitzak publikoki aurkeztu ditugu... bestelako gai batzuk ere jorratzen hasi gara eta jorratzeko asmoa dugu, baina horien berri aurrerago emanen dugu.

### **“Herri euskaldunetan euskara talderik behar al da?” pentsatuko du akaso bateren batek. Zer diozue zuek?**

Guk uste dugu honelako taldeak ez direla inoiz sobera. Euskara gurean indartsu eta osasuntsu dagoen arren, batez ere beste hainbat ingururekin alderatuta, garbi dago euskararen erabilerak hainbat hutsune ere badituela, eta zenbait arlotan eta egoeratan normaltasunez erabiltzeko zailtasunak eta ezintasunak. Adibide erraz eta ximple bat jartzeagatik: Leitzan euskaldun eta euskaltzale den zenbat jende erabiltzen ditu bere ordenagailuko programak erdaraz, nahiz eta euskarazko bertsioak

ere egon badauden (windows, ubuntu, word, power point...)? Informatikaren mundu horretan, esaterako, euskarak toki askoz handiagoa izan lezake, baina erdarak jaten dio oraingo. Eta antzeko adibide ugari jar litezke. Horiretan, eta baita horiek baino “sakonagoetan” ere, badago lan egin beharra.

Nahiz eta herri euskalduna izan, ikusten denez, badaude espazioak irabazteko eta berreskuratzeko. Uste dugu, beraz, ezinbestekoa dela euskara talde bat.

### **Taldea irekia dela esan zenuten aurkezpenean. Pentsatzekoa da jende berria ere pozik hartuko zenuketela.**

Bai horixe. Bost lagun gaude eta ongi etorria izango da animatzen den oro. Talde guztietan behar dira kide berriak, gainera, dinosauroak ere jubilatzen joateko, besteak beste (kar-kar), eta taldearen lana berritzeko, freskatzeko eta hobetzeko.



EUSKARA

**Ordenagailuarekin**  
euskaraz



**K**ax-kax euskara taldearekin egin-dako elkarrizketan, teknologia berriak aipatu dira. Hain zuzen ere, horren inguruko trebakuntza-saio bat egin zuen Kax-kaxek Leitzan. Bertan, erabiltzen ditugun programa arruntenak euskaraz nola instalatzen diren azaldu eta erakutsi zen. Kax-kaxekoek liburuxka bat ere prestatu zuten, eta liburuxka horretako sarrera ekarri dizuegu hona, zuen interesekoa izan daiteke-elakoan. Sarrera horretaz gainera, euskarazko programak instalatzeko erabil ditzakezuen Interneteko helbideak ere jarri dizkizuegu:

Ordenagailua eguneroko tresna bihurtu zaigu, zalantzarik gabe. Lanean, esate baterako, baina baita ikasketetan, etxeko zereginetan, gure zaletasunetan ere... Ohitu gara dagoeneko, beraz, egunero ordenagailuarekin aritzera. Baina egunero ariketa horretan, gaur egun, erdara da

gutako askok erabiltzen duguna. Erdaraz erabiltzen ditugu gure ordenagailuetako sistema eragileak eta programa gehienak.

Egia da erdarazko (gaztelania nahiz ingelesa) softwarea hedatuagoa dagoela euskarazkoa baino, eta aukera gehiago daudela. Baina egia da azken urteotan euskarazko aukera ugari ere sortu dela, eta gure egunerokoan erabiltzen ditugun sistema eragileak eta programa arruntenak eta ohikoenak euskaraz ere baditugula.

Ez dago, horrenbestez, euskaraz ez aritzeko arrazoirik. Baliabideak eskura dauzkagu, eta egin behar dugun bakarra horiek gure ordenagailuetan instalatzea da. Teknikoki bideragarria eta erraza da, urrats simple batzuk jarraitzea besterik ez da eta.

Erdaraz ohituta gaude eta euskaraz hasteak aldaketa dakar. Hasierako nola-baiteko arrotasuna. Baliteke. Baina hori

besterik ez da: hasierako arrotasuna, berehala gainditu eta ahaztu egiten dena. Izan ere, pantailaren eta ikusten dugunaren itxura berdin-berdin mantentzen da, ikonoak eta ikurrak ez dira aldatzen, eta erabiltzen den hizkuntza ulergarria eta logikoa da. Urrats txiki hau eginez gero ordenagailuan erdaraz aritzen garen bezalaxe, berdin-berdin, arituko gara, baina euskaraz, geure hizkuntzan.

Jarraian, eguneroko lanean oso ohikoak diren sistema eragileen eta programen aipamena aurkituko duzu. Sistema eragile edo programa aipatuko dizugu, eta ondoren ikusiko duzu interneteko zer helbidera jo behar duzun hura euskaratu nahi izanez gero. Behin helbide horretan zaudela, urratsak jarraitzea besterik ez duzu.

Urrats horiek eginez gero, ordenagailuarekin euskaraz ariko zara, eta gure eguneroko bizitza euskalduntzeko beste urrats txiki bat egina izanen duzu.

### XP SISTEMA ERAGILEA

<http://www.microsoft.com/downloads/details.aspx?FamilyID=0db2e8f9-79c4-4625-a07a-0cc1b341be7c&displaylang=eu>  
Helbide horretan Windows-a balidatu, deskargatu eta instalatu (beti "hurrengoa" hautatu behar da), eta bukaeran ordenagailua berrabiarazi.

### OFFICE 2007

(Word-excel-outlook-power point euskaratzen ditu, gainerakoak ez).

<http://www.microsoft.com/downloads/details.aspx?FamilyID=91426C33-EA45-482D-AF08-CD8EA8CBFD53&displaylang=eu>

"Deskargatu" hautatu, eta instalatu (beti "hurrengoa" hautatu behar da).

### OFFICE 2003

(Word-excel-outlook-power point euskaratzen ditu, gainerakoak ez).

<http://www.microsoft.com/downloads/details.aspx?FamilyID=ccf199bc-c987-48f5-9707-dc6c7d0e35d0&DisplayLang=eu>  
"Deskargatu" hautatu, eta instalatu (beti "hurrengoa" hautatu behar da).

### OFFICE 2003 SP3 EGUNERAKETA

<http://www.microsoft.com/downloads/details.aspx?FamilyID=ccf199bc-c987-48f5-9707-dc6c7d0e35d0&displaylang=eu>  
Office 2003aren sp3 bertsioa badugu, hizkuntza paketeari hurrengo eguneraketa ere instalatu beharko genioke.

### EXPLORER 8 VISTA

<http://www.microsoft.com/downloads/details.aspx?FamilyID=79154fb4-c610-4a1e-811d-dfe0f1dd84d1&displaylang=eu>  
Deskargatu eta instalatu (beti "hurrengoa" hautatu behar da). Bukaeran ordenagailua berrabiarazi.

### EXPLORER 8 XP

<http://www.microsoft.com/downloads/details.aspx?FamilyID=341c2ad5-8c3d-4347-8c03-08cdec8852b&displaylang=eu>  
Deskargatu eta instalatu (beti "hurrengoa" hautatu behar da). Bukaeran ordenagailua berrabiarazi.



### WINDOWS LIVE (MESSENGER)

<http://download.live.com/>

Nabigatzailea euskaraz badugu automatikoki euskara azalduko zaigu. Bestela, aukeratu, deskargatu eta instalatu.

### VISTA

<http://www.microsoft.com/downloads/details.aspx?FamilyID=0e21eb7b-e01a-4fcc-b7f1-30e419da7f5b&DisplayLang=eu>

Helbide horretan Windows-a balidatu, deskargatu, eta instalatu (beti “hurrengoa” hautatu behar da). Bukaeran ordenagailua berriarazi.

### FIREFOX

<http://www.mozilla.com/en-US/firefox/all.html>

Basque aukeratuko dugu, eta baita guk nahi dugun sistema eragilea ere; deskargatu eta beti “hurrengoa” hautatuz instalatu. Edo <http://www.mozilla-europe.org/eu/>

### THUNDERBIRD

<http://www.mozilla-europe.org/eu/products/thunderbird/> edo

<http://www.mozillamessaging.com/en-US/thunderbird/all.html>

### OPEN OFFICE

[http://eu.openoffice.org/software/jeitsi\\_buruz.html](http://eu.openoffice.org/software/jeitsi_buruz.html)

Nahi dugun bertsioa eta sistema eragilea aukeratu. Deskargatu eta instalatu.

### ACROBAT READER

<http://get.adobe.com/reader/otherversions/>

Helbide horretan sartu eta gure sistema eragilea eta hizkuntza aukeratzea eskatuko digu. Horiek aukeratu eta deskargatu, eta dena instalatzeko “hurrengoa” sakatu.

### HOTMAIL

Opciones > idioma.

Pantailan aukeratu euskara hizkuntza (atzetik hasita 3.a da) eta “guardar”.

### GMAIL

“Opciones” barruan lehenengo aukera “idioma” agertzen zaigu; bertan euskara aukeratu eta egina egonen da.

### FACEBOOK

“Configuración > opciones de cuenta” aukeratu. Gero “idioma” sakatu, eta bertan “idioma principal” eskatuko digu; euskara sakatu eta kitto.

# TXISTEAK

—Aita, handia egiten naizenean amonarekin ezkonduko naiz.

—Baina, semetxo, nola ezkonduko zara ba nire amarekin?

—Zu ezkondu zinen ba nirearekin...

Gizon bat farmazia batera sartu da eta galdetu du:

—Ba al daukazue azido azetilsalizilikoa?

—Aspirina, esan nahi duzu, ez?

—A!! Kontxo! Izena ahaztuta neukan.

## Dordoka

Dordoka bat zuhaitz batera igo da hegan egin nahian. Bat-batean, danba, erori eta hanka bat hautsi du. Altxatu eta berriz saiatu da, horrela hiru hanka hautsi arte.

Orduan txori batzuk beren artean hitz egiten hasi dira, eta batek besteari esan dio:

“Adoptatua dela esango al diogu?”

## Tximuez

Ume bat etxera iritsi da zoologikoko bisita egin eta gero, eta bere amari galdetu dio: “zertan ari ziren tximu horiek bata bestearen gainean?”

Amak, lotsatu gabe, “elkar maitatzen, ume bat edukitze-ko.”

Umeak ulertu duelako keinua egin, baina geroxeago galdetu dio: “eta noiz jaioko da tximu kumea?”

7 hilabete barru, gutxi gorabehera - erantzun dio amak.

Umeak: “Orduan, zergatik zuen hainbesteko presa aitak?”

## Zakur adarduna

Gizon bat hegazkin batera igo da, eta beste batek esan dio: “Barkatu jauna, zera, hegazkinera ezin dira ahuntzak igo.”

Gizonak bere zakurra dela erantzun, eta besteak: “baina adarrak ditu”

Orduan bai, gizona haserraturik: “Eta zuri zer axola bere bizitza pribatua!”

## Ingeniaria eta nagusia

Badoa gizon bat globo batean eta, halako batean, konturatzten da galduta dagoela; maniobrak egin eta beherantz egiten du poliki-poliki, harik eta kalean norbait ikusten duen arte, eta oihera egiten dio:

—Barkatu! Lagunduko didazu? Ordu bietan geratuta nago lagun batekin, ordu erdi noa atzeratuta, eta ez dakit non nagoen.

—Lagunduko ez dizut, bada! Globo batean zaude, aire beroa daraman horietako batean, lurretik 30 metrora, 40 eta 42 gradu arteko Ipar latitudean, eta 58 eta 60 gradu arteko Mendebalde longitudean.

—Zu ingeniaria zara, ezta? —Galdetu du globokoak.

—Bai jauna. Horixe naiz. Nola asmatu duzu?

—Erraza. Esan didazun guztia “teknikoki” zuzena delako, baina “praktikan” alferrekoa. Galduta segitzen dut, eta berandu iritsiko naiz hitzordura, ez baitakit zer egin zure informazioarekin.

—Eta zu nagusi izango zara, ezta? —Galdetu dio kalekoak.

—Bai horixe. Nola jakin izan duzu?

—Erraza da, ez baitakizu non zauden, ezta nora zoazen ere... Promesa bat egin duzu, ezin duzu bete, eta espero duzu beste batek konpontzea arazoa. Berez, orain zaude elkar topo egin genuenean zeunden egoera berean... baina orain, arrazoi arraro batengatik... errua nirea da!

# zer diozu?

# eta zuk,

## Maria Bezunarte



Zenbat aldiz jotzen dizu esnagailuak goizetan?

Esnagailurik gabe esnatzen naiz  
Eta eguna pasatzeko zenbat otordu egin behar dituzu?

Hiru.

Eskuko telefonoa itzaltzen al duzu gauetan?

Oroitzen naizenean.

Leitza tokiz mugitu behar izanez gero, nora hurbilduko zenuke: Iruñera edo Donostiara?

Iruñera noski, hangoa bainaiz!!

"Harriaren meka" esan izan diote Leitzari. Zeren meka izatea gustatuko litzaizuke?

Kontsumo arduratsua, euskera, benetako garapen iraunkorra...

Nola definituko zenuke gaurko Leitza, labor-laburrean?

Herri euskalduna, zaharra, sentimenduz gorria, konplexua, nortasun eta bizi-kalitate handikoa.

Nolako Leitza nahiko zenuke 20 urte barru, hori ere labor-laburrean esanda?

Euskalduna, baketsua, bizi-kalitate handikoa, solidarioa, sentimenduz gorria eta jarreraz berdea.

Mapan begiratu gabe esanen al zenituzke Leitzako 5 mendiren izenak?

Gehienez hiru.

Eta 5 erreka?

Hau bestea baina zailagoa da!

Zerk bereizten du Leitza inguruko herrietatik?

Herri haundiena dela, zerbitzu gehien duena eta batez ere, "bizitza" badago-ela azpimarratuko nuke.

Eta zerk elkartzen?

Alde batetik, hizkuntza, kultura, historia eta istorioak; eta, bestetik, eskualdea ahalik eta hobekien mantentzeko herri guztien lana eta konpromisoa.

Nola idazten duzu gure herriaren izena? Eta esan?

Leitza.

## Pernando Oiartzun

Zenbat aldiz jotzen dizu esnagailuak goizetan?

Behin baino ez, eta segituan itzaltzen dut. Gainerakoan, haurrak esnatu daitezke, eta akabo! Saltsa! Eta eguna pasatzeko zenbat otordu egin behar dituzu?

Lauzpabost: otamena, hamarretakoa (batzuetan hamaiketakoa ere bai) bazkaria eta afaria.

Eskuko telefonoa itzaltzen al duzu gauetan?

Ikarari bat baino gehiago eman izandu dit eta orain gehienetan bai. Baina, noizean behin, esnagailu faltan naizenean, lan horretan ere jartzen dut.

Leitza tokiz mugitu behar izanez gero, nora hurbilduko zenuke: Iruñera edo Donostiara?

Aukeran nahiagoko nuke Donostiako Antiguu auzoa Errekako azpi-auzo bihurtu, eta Iruñerriko Berriozarko landaldea Leitzako goiko landari erantsi.

"Harriaren meka" esan izan diote Leitzari. Zeren meka izatea gustatuko litzaizuke?

Ez dadila deusen Meka izan, haundikeriak harrokeria dakar, eta haizea sobra dago bazterretan.

Nola definituko zenuke gaurko Leitza, labor-laburrean?

Herri euskalduna, bizi-bizia, jende langile asko duena, eta ongi gobernatua. Eta horrelakoa denez gero, espa eta ezin-eramana sortzen ditu.

Nolako Leitza nahiko zenuke 20 urte barru, hori ere labor-laburrean esanda?

Eutsi diezaiola bere nortasunari oraindano bezala, alegia, izan dadila herri euskaldun eta harrandio-soa, baina harropuzkeriatan erori gabe.

Mapan begiratu gabe esanen al zenituzke Leitzako 5 mendiren izenak?

Esanen ez ditut ba: Aizan, Okabio, Mendibil, Baztarla eta Eguzkizko muñoa.

Eta 5 erreka?

Zailxeagoa zait, baina bai: Gorritzaran, Erasote, Errekabeltz, Franki eta Gazpillo-zulo.

Zerk bereizten du Leitza inguruko herrietatik?

Sarrion lantoki haundiak, lantalde antolatu kopuru izugarriak, kale dinamikaren bizitasunak eta bertako euskalkiaren galerak.

Eta zerk elkartzen?

Aspaldiko esanerak dio: herri ttikik, infernu handik, alegia, ezin sufrutkeriak eta ezin ikusiak eguneroko bazka ditugu, bai ez beste herrietan baino gehiago.

Nola idazten duzu gure herriaren izena? Eta esan?

Idatzi beti Leitza, edo aldian-aldian Leitze. Esan berriz leitze euskaraz, eta Leitza edo Leizzza erdaraz.

